

Erronkariko «uskara»ren azken hatsak... *oraino're!*

Duela hamar bat urte, eta Aldizkari hontako 25gn. alean aditzera eman eta aipatu ere egiten nuenez (FLV 25 - 1977: K.A. «Erronkariko uskararen azken hatsak ... *eino're!*»), Erronkarira eginiko bidaiaren batetan, Doroteo de Miguel eta Josefa Karrika bere emaztea, *Xarde* etxekoak, ezagutu ahal izan nituen Uztarrozen.

Garai hartan, nekez bazen ere, Izaban bertan euskaldunik arkitzea baziteken —Antonia Anaut, Sotera Ederra eta León Cebrián, gutienez, gaurregun mundu hontatik aldeginak— baina orain, Uztarrozen ezik, ez dut uste haran hortako beste ezein herritan inor aurki daitekeenik eta aipatu hiri hontan ere, zoritxarrez, esku bakarreko eriekin konta daitezke direnak oro.

Lehengo harira itzuliz, *Xarde* etxeko senarremazteak ezagutzera iritsi nintzela esaten hasia nintzen; ezagutza hartatik eta askotan gerta ohi denez, adiskidetasun sendo bat sortu zen eta harez geroztik maiz izan dut haiekin egoteko aukera.

Zenbait aldiz, —pare bat edo, gutienez— magnetofono bat izan dut alboan eta bertan eginiko grabaketak honera ekartzea egoki iruditu zait, interesgarri direlakoan.

Lerro hauek idazten ari naizen 1979ko Udaberri hontan, Doroteo de Miguel jauna 85 urtetako gizona dugu; mundu hontan, zinez, sobera lan egindako gizona. Gorputzez txiki, mehar eta zaintsu, ibiltzean aski arin nahiz azken urteotan, ulerterraz denez, bajaldian egon; oso umore oneko eta azken batez, hizketalditarako eta beste zernahitarako, beti beso zabalik, prest egoten den bihotz handiko gizona.

Batek pentsa dezake laudoriotan ari ote naizen denbora ematen, baina ez; nahiz definizio hori oso apal eta eskas izan, horrela da guti gorabehera, gizon hori nik nola ikusten dudana.

Bera mintzo den euskarari buruz, eta irakurlea laster asko ohartuko denez, nahiko desitxuratua duela esan daiteke. Hemen noski, hitzegin gabe egoniko urte luzeek aipatu desitxuraketa leporatu diote, bere gazte denboretan, amarekin bereziki, eta mugako mendietan tokian tokiko artzaiekin mintzatu izanak, oraindik orain, zerbait gogoratzea utzi badiote ere. Horre-

gatik, berehala antzemango zaio ere, inguruko hizkelgoen aldetiko eragina —artzain izaniko denboretan berarengan gelditua—, bai-eta, agian nagusienik, erdararena ere. Baina zailtasun eta baldintza hauek guztiauek kontutan izanik ere, gorde ahal izan du, nahiz murriztua izan, hain paregabe den erronkariar mintzatze hori; horretara, zalantzarik ez, bere zaletasun ezin handiagoak zerikusi handia izan du, inguruko sikologi-giro ondatuari menik egin gabe, harro erabiltzera bultzatu baitu. Bestalde, eta Erronkariko *uskarari* dagokionez, aspaldiko albisteek birrindua eta suntsitua dagoela esaten badute, ez da inorentzat harrigarri gertatuko baldin eta, oraindik orain, ia mirakuluz, bakanen bat aurkitzen bada, halakoak egin dezakeen euskara oso aberats ez izatea.

«Orden fite kèbenti ...! éraguzak fite ...!»

«... pero una cosa que casi la tenía casi olvidada ... lo que por poco sabemos, pues, es las preguntas y las cosas éstas ...»

«xoázte kèbenti», «xoán kébenti» quiere decir: vete de aquí, o eso, alguno que le digas, algunos entienden esas palabras así, pero correcto para decir ...»

«gìxon kuék, gúziak, kór, éz entelegátan bâtre ...»

«... bárra egitan dù, Doroteo nólaz míntzatan dú ...»

Aditz laguntzailea dela-ta, hona non aurkitzen den desitxuratzerik handiena. Hala ere, eta hoberik ezinean, bai-eta dugun hau ezer baino gehiago badelakoan, hemen aurkezten dut azken zenbait eguberritan nik bidali krismei eta erantzun gisa, igorri dizkidan berak idatzirikoko beste krisma batzuen argazkiekin batera.

Josefa Karrika bere emazte maitagarriaz zerbait aipatzekotan, eta euskarari dagokionez, guti dakiela dirudi; eta «dirudi» diot, ez baita erraz izaten, batzutan behintzat, bere adinekoek zenbatetaraino dakiten jakitea; izan ere, irekiak izatea, bere senarra salbu, ez da gauzarik behinena izaten arlo hontan, gehienak, gauza hauek direla-ta, itxi egiten baitira, «está todo tan distraído ...» eta gisa bereko aitzakien bitartez. Hala ere, kontaketa txiki batzu ezagutzen ditu, «cantinela» gisakoak eta errexitado eran esaten dituenak, eta, noski, ez dut inola ere honera ekartzeko okasionea galdu nahi izan.

Beraz, aipatu akats guztiak bazter utzirik eta jasoriko hori ulertzeko adina dela pentsatuz, lotuko natzaio lanari, ez ordea textuari buruz ohar bat edo beste egin gabe.

Zenbait erakuslerekin hasten bagara, adibidez, *sar ... zubian kor, zilo kori* eta *xatako orai, tenpra kau* gisako esaldiak aurkitzen dira, lehen adibidean «zilo kortan» eta bigarreanean «tenpra kontan» itxaron bazen ere. Ize-norderekin jarraituz gero, hor aurkitzen dugu ere *kura bar du pagatu* eta

badaki anitx onki kori, uskara, lehenengo kasuan «arek» eta bigarrenean «korrek» erabili beharko bazuen ere.

Lur eta *elur* hitzak, nahasirik edo, hobeki esan, behar hainbat berezi gabe erabiltzen dituela dirudi. Zenbait hitzen azkeneko *t*-ren galera, *bos(t)* eta *zomai(t)* direlakoetan, gutienez, nabarmentzen da, bai-eta beste hainbat hitzen bukaerako *k*-rena ere: *sartu(k)*, *biztitu(k)*, (gure «sarturik» eta «biztiturik / jantzirik» dira); ... *eta ez uxtan orai tenpra(k)*; *badaki(k)*, *izaguna du(k)* *Amado?*; *il ditu(k)* *aski onki*, eta abarretan.

Du aditz languntzaileak, bestalde, berak ebaki eta taxutu bezala, hainbat gauzatarako balio du:

- 1) *xoan du*, adibidez, «(bera) joan duk» adierazteko erabiltzen du.
- 2) *erran du*, adibidez, «(berak) esan du» adierazteko erabiltzen du (ohi denez).
- 3) *egin du*, adibidez, «(hik) egin duk» adierazteko erabiltzen du.
- 4) *egin du*, adibidez, «(nik) egin dut» adierazteko erabiltzen du («egin dur» erabili ordez).

Honen arabera, eta textuko esaldietara jotzen badugu, honelako esaldiak ikus ditzakegu:

- 1) *xuanen du anix obe ezi Lazara* = (joango duk Lazara baino askoz hobeki).
- 2) *kostatan du anitx orai ...* = (kostatzen du asko orain).
- 3) *ekusi du nola ...* = (ikusi duk nola ...)
- 4) *ez du(r) nik* (lotsa) *xoaitako* = (ez dut nik beldur joateko).

Singularreko lehen pertsonan mintzo zaigunean, (bere buruaz, alegia) eta iragangaitza dela-ta, *da* erabiltzen du sarri: *egon da Tardiraz / egon da ekustan Zaragoza / egon da Ansó / egon da ... egon naz, nuzu* edo *nuk* itxaron zitekeenean; era berean, eta bere buruaz ere ari delarik, *xuan du / xuanen du* eta are *xagi du* erabiliak ditu, lehen aipatu *naz, nuk* edota *nuzu* itxaron zirenetan ere.

Keben extiz'ikustan, eta *extiz'ilkitan ez etxeti ...* «ez duzu (= da) ikusten» eta «ez duzu (= da) irtetzen» direlakoetan —begirune handi samarrez nahasiriko zukako tratamendua—, agian itxaron genitzakeen «eztuzu ekustan» eta «eztuzu (edo eztizu) erkitan» ez dira, bigarren kasuan batez ere, erdizka baizik nabari, bertan Zuberoako *elkhi* edota Zaraitzuko *elki* bera, garbi azaltzen bazaigu ere.

Xisten dienian, «xitan» edo «xinen denian», alegia, «etortzen» edo «etorriko denean» bezala azaltzen zaigu, bai-eta *bare badu ...* «baldin badu» bezala ere; *bar diez* eta *extakier*, begirunezko, zukako «bar diezut» eta «ezta-

kiezut»-etik datozela dirudi, bidean, «bar diezt» eta «eztakiezt»-etik iraganak, nahiz azken hau, «eztakiar» ere ahal izan, hikako era erabiliz gero.

Ni gazte-n'zinian ... «gazte nintzenean» dela garbi ikusten da, bai-eta *xoazte*, (xoan zte), «joan zaite» ere; *galtan dienia(k)*, «galtzen duenak» (*dienak* behar luke), guztiz erronkariar den *erraitan zien* hori, «esaten zuen» den bezainbatez.

Ni(r)iki, goxak, ekustan dinian (Amado izeneko bere lagun bat) esatean, ez dakit zuzen «berak (Amadok) ikusten duenean (= *dienian* ni)», ala «nik bera ikusten dudanean (= *du(a)nian*)» den. Bestalde, bada hor, testu guztian barrena, adieraztea bera baino sumatu edo, bestela esan, usaindu egiten den beste hainbeste era, irakurleak ohartzeko aukera izango duenez.

Ohar xume hauek egin ondoren, utz diezaiogun, bada, gerora gabe hitzegiten, bere hizketaldian agertuko baitzaizkigu egunoroko biziaren gora-beherak eta hauen bitartez dituen euskal nortasun eta zaletasun handiak.

* * *

UZTARROZE

DOROTEO DE MIGUELekin (77 urte) eta JOSEFA KARRIKA bere emaztearekin (72 urte), «Xarde» beren etxean, 1971ko Abuztuaren 12an.

Doroteok: *Utúrria, oh! fíte, fíte éltuludu,¹ ez dagó ànix urrin éz! ... les dije: no está muy lejos, no ... y dijo uno: éste ... fíte, el fíte, éste no lo ha entendido, pero yo sí, dijo uno ...; ya llegarán pronto, ya ...*

Pues orai, tenprá ànix ... bétik tormentáki, e ... gúzia, ànitx éuri egítan, eta fíte ... xítan ... ànix béro, eta gária, eta patatá, patatá xoáitan ànix ónki ... pero gária y eta áutzak y eta kolaxé, gúzia, gúzia tústatan, orài ...

Orài, bar dú orái, xíni ... tenprá, ón, bértan, pues bar dú xuán y eta ... bar dú ... ebáki, talláreki, eta ... mandúakerekì, (zuzentzera doa) mánduarekì, bar dú, bar dú ... éltzu(n), èltzu égin ... méndian ... lo cortamos con la dalla, tallá ... la guadaña, tallá ... y eta géro, ónki ... béro, bien caliente, xoá(n)ten dú... y eta éltzu, se lleva a una era ... llárne bátra, éltzukatra; manduéki, mánduak, mandúarekì ... éltzuka-tra; eso quiere decir que vamos a trillar ... eta géro, kánti, manduéki, bástian o ... sóinian ... mánduarekì, xáistan kánten² méndierìki, bí záko

1 Badirudi elten edo elturen duk = arrapatuko, hatzemango duk.

2 kánti izan behar duela dirudi.

*o bi ... mànta ándi, izar kolaxé, y eta gero tsátsi a ... (); eta ... kòstata-
tan dú anitx oràì, egitáko gáiza kuèk, oràì méndian, eta ... òrai egítan
dú, karretéra bat, kór, Láza, ekúsi dú nóla egítan dú, méndia, cara a
Santa Bárbara, bar dú, órai ... éltu, kóri, písta bako-(b)àt ... áni(t)x
ón, áni(t)x ónki, y eta géntia gúzia, xuánen dú ánix óbe èzi Lázará,
xuánen dú kórre, méndik gòra,³ edá ànix pólli, da(g)ó obéna, Erronká-
riko méndi pollitáo dagó gáinian; óbe èzi ... èzi Belágua, ekústako gúzia,
Salazár, Aézkoa eta ... abántxu, Irúña ere báì, abántxu; èkústan dú, kor,
Santa Bárbara(n), gáinian ... de ese monte, digo, de Santa Bárbara, que
se ve, se ve todos los valles, se ve todo, es un alto que está así, pelao,
así, redondo, y la carretera va a dar cerca, ahora, hasta ahí ... ègon dá
ánitx ónki turista kuentáko eta gurè lanék, oráì ánix patáta azíkatu, ánix,
áurten, ánix kilo, sei ... zortzeín mílla, kilo ... azíkatu áurten; bèste la-
gún bàt- ... erekí, badakí, izagúna dú Amado? kóri mintzatan dú ánix ...
uskará ere báì ...*

—Bai? mintzatzen da?

Sí, ánix ...

—Ez bakarrik ulertu?

*Eta mintzatan'e báì; ní(i)ki,⁴ góxak, ekústan dínian, bétì mintzatan
biák: lén ... ègun ... nóra bàr du xuán, o zér bar du égin ègun ... o y
eta ... nóñ èbiltan dú ... kolaxé, gúzia, ánix ónki ...*

—Nola du abizena?

*Amado Orduna; badakí? da ánix, oh, gizon ázkar ... ègun bàt,
Vicénterekì, Olánorekì,⁵ bar Látxan, ní mintzatan ... Olánorekì, e ... èk
orà'rè, zér barra egítan! eta ní èrran dú(r) Vicente: kóri, entelégatan dú
gúzia; ná! nóla egítan dù bàrra!? ...*

*Méndia, nóla èrraitan dú? Izága èrráitan dú, méndi bat, Urúñan
da(g)ó, puntiágo ... nóla ... Óriki gísa, dagó ... ánix ... a Urúña eta kán-
ti, kórti, èkustan dú ánitx ónki, eta Erribrá, èkústan dú Ujé, dagó ebe-
bén⁶ Zankóza, badakí Zankóza qué es? Sangüesa, que tiene ... Ujé, tiene
un monte muy alto, también se ve de allí, èkústen dú kórti, Santa Bár-
bara ikustan, ánix ... ánix ónki; nóla Ezkáurre ... gísa, da; bérber gísa,
be ... (zuzentzera doa) óbro ... ándi ... más grande la peña Ezkáurre,
pero no mucho, no; èkústan dú ánix ónki.*

3 mendirik gora, zalantzarik gabe.

4 niriki behar du izan. = Nirekin.

5 Doroteo jaunaren adiskide andoaindar bat.

6 keben (= hemen) izango ote da? (Zub.: heben). Hala izanez gero, gaididura bat nabari dela dirudi.

Bèste úrtex, xuánen dú(ziá?) gúziek èkústra kár-kár;⁷ karréterá ónki izari, èkúsiren dudá ... y òrai, ba zièntáko xítan dú bízi bat obeáo èzi zarrentáko; orái, òrai ez dágo bídia, gúzia xár eta ánix gáxki ... ánix, bah! ez dágo, gúzia ... no poder andar, vaya; éz, éz ébil(l)i, éz orai ... pero karretán,⁸ hala! gúziak órai bizikléta, áutoreki, mótoresi ... tràste gúziak, òrái; zarrék ez, zarrék xánkoareki, xánkoreki, hala, xínka-xánka xoon ...

—Zenbat euskaldun dira orain Uztarrozen?

Órai txiki, txiki orái ya; bah! xuán dú ... bai, eta dagóna, dagó ánix gá(i)xki; Balbina, dagó ánix gá(i)xki, bá'ánix, y eta Alvara,⁹ ère báí, ánix zár ...

—Alvarak ongi daki?

Ónki ... pero ez dágo órai búriareki èz dagó áni(t)x ónki ... ez.

—Bainan ongi daki?

Anítx ónki ... pero órai, eh! ... erráitako ... ní(r)iki zomá ... èkús-tan ... xuán, ahora eztiz'ilkítan ez étxeti ... Alvara ta éz ... eta Balbina, sólo bortára ... eta ní, xárritan, méndi bát badú ... bere etxían gáinían, y eta igártan ní eta míntzatan zerbái ... eh! óbro ez dagó ...

—Eta Horren emazteak ongi ulertzen du eta hitzegiten ere bai zerbait ...

Bai, sí, gòre uskará, gòre uskará; ahora, ziè'(u)skará èz, éz entele-gátan, ez ...

—Eta zein gehiago hemen?

Ez dagó èz óbro, éz; míntzatakó èz dagó, ez; zòmai(t) gizon, báí, zomái ... érran ... o «erágu zá ógi», o «erágu zá», o «xoázte kèbènti», xoán kèbènti quiere decir: vete de aquí, o éso, alguno que le digas, algunos entienden esas palabras así, pero correcto para decir hablar una conversación, así, en eso, pues no ... éur ere.

—Eta andrerik? («mázterik» esan nuen)

Mázterik, ez; txikiáo oráino, txikiáu orai ...; kosino própio bat,¹⁰ badú kémen órai, xínik ... Uríñatik, kónek, Joséfareki, bai, zomái errái-

7 Ez dirudi hurrengo hitzaren haserako silabarekin zer ikusi beharra duenik, eten bat aski garbi nabaritzen baita. Agian "kara" nahi izan zuen esan?

8 *karréteran* behar du izan, noski.

9 Balbina Ederra eta Alvara Garde aipatu ditu, gaurregun hilak.

10 *kuxala* edo *kuxalena* erabili beharko zuen. Fidela Bernat bere lehengusina ari dela ohartzen bagara, eta, bestalde, *kosino* = *primo*, *cousin* izaki.

tan, len, zòma'lé(e) ¹¹ ... *míntzatan zerbái, pero éz érraitàko ánix ónki ... éz ánix ónki.*

Eta ní, udán, ègítan báí ártra lib(u)ru léeta ¹² *aurréki, errán ... zerbái pero ... òrái, orái ez dago ténpra, na(g)ó akáituètan, xítan de mén-diatik eta ... oh! (liburu bati begira) kóri zér du? zér du kóri?*

—Eskuarteetan dudana liburua erakutsi ondoren eusten natzaio berriro gaiari: Horrek ezagutu zuen hemengo txun txuna?

Txuntxúna? nor?

—Horrek

Sí, èkúsi ní ánitx ...

—Eta nola dantzatzen zen, eta zein lekutan, eta ...

Bueno, dántzatén pues bí kotán, ¹³ *eta tanbór báteréki (eta) txistúri báteréki ... xáseri kór, utúrrian dagó(n) plasztán, eta kór, kór gúziak dántzatù, mazték égin kolaxé nola kuék y gizonék kébenti; sártu, sártu agobárnian,* ¹⁴ *eta gúziak: tátatá, tarátatá ... (zenbait konpas ematen du kantari) y cuando rompían el corro, o eso, iban corriendo, iban, rompían el corro y ... tátara, tátatatárara ... (ixilean abesten du) y el tambóril, tarátatá, rarátatá ...*

—Eta jende asko joaten zen ikustera?

Oh! gènte gúzia!, mitiléki eta neskatuéki ta hasta gizonék'e ... bordáluik ere báí sártan ... eta gúziak kanzónareki, bèste ... bèste gisa, erronkariár ... Erronkariako gisa ... biztitán, gúziak, ánix ...

—Eta Uztarrozekoak bakarrik?

Sólo; oh! xítan ere báí bèste lékutik, pero órai, nòla órai ez; ordien, bí ègun sólo fiestá: San Juan eta San Rok, ¹⁵ *bí ègun, eta géro Ama Bér-jina ... èguná ... el día dos de junio, o de julio, es la Virgen de esa*

¹¹ Agian, zomait ele = zenbait hitz.

¹² Agian, lerro ilun honen esanahia honelakoa litzateke: "Eta nik, udan, eragiten ditut (etxeke haurrak), (euskarazko) liburua hartzera eta irakurtzera", aurreko urtetan etxeke bilobei, euskarazko gramatika baten bitartez, zenbait hitz irakasten saiatu dena kontutan hartu behar delarik.

¹³ Ez da oso ongi entzuten; horrela izanez gero, "bi gonatan" (?) izan daiteke, izan ere, eta txun-txuna dantzatzeko erabiltzen zituzten eran?

¹⁴ Hau ere, oso garbi ez baina, horrela entzuten dela dirudi. *Sartuk* (-k eroria), *sarturik*-tik hasi eta, ongi ikusten den bilakaera batetan, *sarturuk* eta *sartruk* direlakoan bitartez, oraingo *sartu(k)* hontara iritsia; *agobarnian*, bestalde, literalki "ahobarrenean" dena, "ahoz behera"-tzat har daiteke. *Txun-txuna* dantzatzean eta eskuin ezkerreko dantzariak beren besoez egiten duten arkupetik iragaiteko egin behar den makurraldiari *agobarna* esaten zaio, nonbait.

¹⁵ "San Roque" izango da, noski.

ermita, ese día también, lo demás nada; era en días de fiesta, pues se bailaba la jota.

—Eta Erronkariko jantzia ...

Erronkáríko ... ère báí; ... báí, báí, ánix pólí, nèskatuéna. Égon dá ... órai, kében, San Martínen ègúna, égun, xuán alkatiéki eta màxtiáki, gúziak bíztitu, eta égin dú ánix ónki, egúna, égin; ... fotógráfo ègítan dú, áni(t)x ... érkín, ánix ... áurten, érkín dú áski ónki, èta elizán ère báí, gore fiestán, Kármén ègúna, elizán, pues égon, bí mítil y bí nes-káto, xuán apézararekí emóittra, ogía eta ardóa, ofrézittra, eta kóri kon-ságratú ... eta (xán?) ...

—Oso polita izango zen; eta Hori noraino joan izan da?

Égon dá Tárdíraz, sólo, eta kében, Zaragózara.

—Tárdira? Tárdíraz?

Tárdi; Tárdi dagó kében, Frántzian ... bai, eta kébentíki ... égon dá, xuán dú, kébentí, Burgéte, èta Espínál, èta por Biskarré(t), mànduéki, xuán dú ... San Fermínera mànduarekí, sáltra, feriára, kébenti, eta géro, àrtzaiéki, artzái, àrdiéki, égon dá(n) Erribrán, Errib(e)rán, eta ... égon dá ekústán ... Zaragóza, xuán trénarekí, xuán, eta géro kébenti égon dá, Ansó, kèbenti Ansó karataxá(g)o extéi (!) égon; bueno, égon dá, hasta ... égun bat, txérkatra màndo-(b)at, mandoéki o ... bèur-rentáko, eta ... cómo le dicen ...? (nóla?) erráitan dú órai, méndi kóri o este ... bide kóri ... Ansó, ay! (zuzentzen ari) Hecho!, Hecho; Ansó, lénea Izábakó xuáitan ¹⁶ Ansó; Ansóti Héchoara ... égon da, éz óbro ... karatax(e)á(g)o, bàizix (!) égon ní; kèbenti ... pues Aragón, égon dá(o) Ejea, eta Uncastillo, erráitako, bí ídik, koriék, ardízeki (zuzen-tzera doa), àrdiéki ... udán eta ... égon, kan.

—Eta Frantzia aldean zein hiritan esan du?

Égon dá, égar dá ní ere báí ... égon dá ... nère ¹⁷ béste úmearekí òrai bordáltuk dagó Frántzian, eta éraman nún er'ene màxtia y eta ... ne-re ... kuñatá, Julia, égon da kór, kán, eta Marsella, Tulón (= Toulon), égon dá, eta, eta e'Lyónen, égon dá, kan, ne'úme bat, monja ... badú(r), eiá xuánen ... kán ekústra, égon ...

—Eta lehenago Horren alaba hori ez zegoen Libanon?

Ab! kúra dagó orài Líbano, kúra égon dá ... Lyón, eta en Roma, Róman égon dá, Páparekí ... ta órai dagó Líbano.

¹⁶ Izabarik itxaron ziteken.

¹⁷ bere entzuten dela dirudi.

—Eta lehen aipatu duen Frantzia aldeko hiri hori, zein hiri da? Tárdiz?

Tars, sí; kében? léna da Larráu ... eta géro dagó Tárdiz; Lik, Lik y ta Lik y Tárdiz y eta géro ...

—Ah! Tardets, Atharratze ... euskaldunek Atharratze esaten dutena?

Tardéts, Atarátze ... Atarrátze ... sí, sí; Tárdi ... lo llamamos así, Tarátzeze ... èta géro Mauleón, ère báí ...; igánte káu, bár di xin orài, badú ... anáxe bát, bère ... xinen dú, igánte káu, igárt(r)a, egúna kében, bar dú xin; égun, eskribitu du ... kánti, y xísten d(i)énian ...

—Horren anaia bat? badaki euskara?

Ez! ba, zerbái báí, badakí, pero éz ánitx, ez; ez frantzés y eta éz karabái; ¹⁸ kében, Mauleón, gúziak mintzatan abántxu, gúziek mintzátan ... español; badagó ánix español kebénti xuán(ik) ...

—Kontaketa ttipi batetaz oroitu bide da eta hasten da kontatzera

—Érrak, oooh! ékusi dú gòre béiak, ígar kébenti?

—Bai!!

—Eta nóra xuán dú?

—Oh! bíxkar kortí! (no, lénago)

—Ékusu dú gòre béia, mutúrra béltzarèki, bère tzintzer zár bàte-rekila kébenti?

—Bai!!

—Y eta nónti xuán dú?

—Bíxkar kortí, xuán dú, àrrankóikora ...! ¹⁹

—Y eta dagó ànix ténpra ígar kébenti?

—Bái, báí, egítan dú ánix ténpra!

—Pues, zomát ténpra ègitan dú?

—Egítan dú bós ilabéte!

—Ordíen, èz zé'niriak kúrak!!

Ondoren, eta gehigarritzat, gaztelaniaz ematen du:

¿Has visto nuestras vacas ... con unas esquilas viejas, pasar por aquí? —Sí!! —Y por dónde han marchao? —De ese cerro han bajao al barranco! —Y hace mucho tiempo, y hace mucho rato que han bajao? —Sí hace mucho tiempo! —Pues, cuánto tiempo hace? —Hace cinco meses que pasaron!! (barre egiten du lasaiki).

* * *

18 Ez dakit zer den.

19 barrankorik gora dirudi, nahiz berak, erdarara itzultzean, han bajao ... esan.

KOLDO ARTOLA

JOSEFA KARRIKA andreak, euskara ez du hitzegiten baina ulertzen bai zerbait. Zenbait kantu eta ipuin ttiki, oraindik orain, buruan du, aditzera eman digunez: «Ai, Maria, Gaiaren Gai Ona» delakoarekin hasi zaigu:

(Ai Maria
Gairon Gairo)na
Sortu da Jein ona
Natorebitate
Urterebitate
Argizagia
Medalla andia
Zutan fidatzen da
Mundu guzia
(T)xandalo peti lakorte
Giltzak eskian lakorte
Paraduso sabar(r)a
Kanko unra sagarra
Sagar kartarik
Xanen zala
Jeinaren seme ta alaba
Jesus, Santa Maria
Dakigula balia
Ilean ta bizia(n)
Aremaren ordia(n)
Oillarra txuri munduti
Ainguri ona zeuriti
Ogi ona ostiarako
Ardau ona kalizarako
Ketan bietan konbertitu(k)
Jesukristo goretako
Ekusuri bi(r)tute
Eguzkuti lakorte
Gore Jeinaren
Kandela grazia lako(r)te

Aurreko kantu xume honek, itzulpena baino gehiago, adierazpen aski sakona behar lukeela iruditzen zait, ez baitut uste zuzenezko itzulpen bat egitea gauza erraza denik, metaforaz eta ezkutu-zentzuez beterik ikusten dudanez geroztik.

Ondoren, «Goázenes» izenez ezagutzen direnak ere esaten hasten da, baina berehala ohartu ahal izan naiz aski desitxuratuak dituela. Ikus bestela,

ERRONKARIKO «USKARA»REN AZKEN HATSAK... ORAINO'RE!

eta are, eskuin aldean, jatorriz zuberotar den kantua hitza idatzi, eta bera-
rekin parekatzen bada.

(Goazen ainguri) <i>eki</i>	1 - Hots aingüriekin,
<i>Arkanxaliek</i>	Arkanjeliekin,
<i>Gaur quantzatzer</i>	Gaur khantatzer,
<i>Gure Erregiane</i>	Gur'Erregiaren,
<i>Xinko Seme</i>	Jinko Semiaren
<i>Aren adoratzer</i>	Adoratzer.

<i>Guazen gu ere</i>	4 - Guatzen gü ere,
<i>Bigotzen bedere</i>	Bihotzez berere,
<i>Leku artzer</i>	Harpe hartara,
.....	Jinko Gizonaren,
.....	Jesüs maitiaren
.....	Adoratzer.

<i>Ezin zotegatik</i>	2 - Ez izotza-gatik
<i>Ez inunpegatik</i>	Ez ülhünpe gatik
<i>Egon erabe</i>	Egon herabez.
.....	Har fedia gida,
.....	Jinkuatan fida
.....	Guatzen lasterrez.

Ikusten da, bai, euskara ahazturik izatearen ondorenez, kantu hau bera
ere zenbatetaraino joan zaion itxuragabetuz. Hona, bestalde, hurrei kanta-
tzen zitzaizen beste gauzatxoren bat:

Pinpili ponpa
Zeroria non da?
Marteleko,
Sabeleko aurrak
Bederatzu beira
Borzak ilik eta
Laurak arrakaita } bis

*Pinpili Ponpa, zeroria non da, eso se hace así, cunándolos así, Mar-
teleko ... Pínpili Pónpa quiere decir ... bin-ban, bin-ban, así, cunándolo-
los; zéronía nón da, dónde se han caído? ... los hijos de ... Marteléko,
de Marta (!) ... Márteléko áurra, bèderatzu béira: nueve hijos, nueve
hijos! y cinco se han muerto y cuatro se han recogido. Eso quiere decir,
eso.*

KOLDO ARTOLA

Después de eso, de Mirri Marráu, que hacen así en la cara, que le he dicho ...

*Mirri marráu
Zér xánen dugú gáur
Pápa ta txítxi
Nón dago ène pártia
Párete xílo ártian
Éz kàn, báí kàn
Gàtu buru béltxak xán*

Pues es, Mirri Marráu es ... se hace así (bi eskuez, haurren baten bi masailak ferekatuz bezala), qué vamos a cenar esta noche? pan y chicha; dónde está mi parte? entre el aujero de la pared; allí no está, allí está, el gato de cabeza negra lo ha comido. Eso quiere decir ...

Cantos sabíamos antes, pero ahora ... bien! para recordar ... «Bolan bolan bi», para hacer dormir a los críos ...

*Bólan bólan bí
Que en Vitoria lo aprendí
Una moza nexkatúa
Dos huevos arráutze bí*

Lo ve? castellano y vasco, eso es así ... la misma cosa, en dos lenguas, en dos idiomas, vaya ...

Y también jugando, los coges en el brazo así, y bailándoles así ...

*Trò - tro - tró
Mándokó
Zómat ítze bìar dukó
Íruñára fáiteko²⁰*

Y venga, y así; en vez de decir «al trote, al trote ...» que a lo mejor dice en castellano, «al paso, al paso ...», le mueves los pies así, «al trote, al trote, al trote ... a galope, a galope, a galope ...!», pues eso es así: Tro-tro-tro, mandoko ... (itze =) herraduras, clavos ...

* * *

²⁰ Jatorriz Bidankozekoa dirudi; uztarroztar izatekotan, azken lerro hau Uruñara xoitako litzateke.

Bigarren egonaldian, «Xarde» beren etxean, 1975ko Martxoaren 29an.

Doroteo jauna kontatzen hasi zaigu, ohiki, zein izaten diren erabiltzen dituen esaldiak.

Doroteok: ... kében etsian, lánaren egítanzále, nóra bar du xuán, eré, o zómat ténpra bar du ígar, es, cuánto tiempo has de pasar ... y así, zér lan bàr du égin, eta ... abér akábatu fíte ... fíte, el fíte vosotros no lo tenéis ...; unos vascos, los primeros, cuando venía éste ... Vicente Olano, me preguntaron; vendríamos de trillar del monte, y me dijo a ver el vasco, no sé qué, si sabía hablar el vasco, pero ...: allá viene uno con unas caballerías, ése ya sabe, ya (euskara) y los tropecé ... y me comenzaron: Nón dagó utúrri bat? Oh! ez dagó ánix urrin éz, fíte, fíte éltelen dú ... y le dijo: tú no entiendes el fíte; fíte, aquí tienen, Orden fíte kèbenti!! , éragu zak fíte! ... trái pronto!!; el fíte, es una palabra que, ya, a lo mejor, quizá en Salazar ... lo entiendan; pero ya, en San Sebastián ya tenéis otra palabra ... es que viene mucho de Mauleón aquí; el Érrak ooh!, sabes de dónde lo tenemos también? de Francia, porque allí con los franceses, cuando se ponían a gritar de uno a otro, le decían: Érrak óoh!! oye tú!!, se gritaban, zer duk!! qué tienes! ...

Elkarrizketatzeko zeinahi den gai aski on iruditzen zaidanez gero, hasten natzaio galdezka:

—Galdetu nahi diot Horri zenbait gauza

Zér gáiza, errán

—Atzo, «Orzilaré Saintu», elizara joan zen?

Bái, bái, ègón da bái; ekúsi ... e ... lizára,²¹ eta ... ánix ... ánix génte, ègón, bái, ánix, atzó, atzó ...

—Elurrik izan da Izaban eta Uztarrozen?

Élúr? bái; àurtén ... udán èz ... (zuzentzera doa) no; négu, négu, néguan ez égon eta óraí ... bed(er)átsian, óraí erórtan du, mártxian, erórtan, oràí (e)lúrra, ténpra gáixto egítan oràí, oràí; oràí bar dié-la²² égin ... lának, barátzian eta méndian, patàta ... ázikatra, éta bar dú ... áziko ... ère bái ... gária ... eta éz úztan oràí tenprá, gáixto; oràí

21 Ez dirudi aurreko e horrekin lotzen duenik. Aurrerantzean ere, lur eta elur hitzak erabiltzean, nolabaiteko nahasketa nabariko zaio.

22 bar du-tik erakarria dirudi. Bar du(r)ala behar luke, agian, bere buruaz ari bada, behintzat.

KOLDO ARTOLA

béro ègítan dú, bai, éguzkia bèro, dagó ... tènpra ànix gáixto ... ta koláko gísa, pues ... éz ... óngi ... xoáitan ... lanék!

—Eta joan behar izaten da bortuetara, behiren bila?

Ah! kében, òrai, èz dagó borda ... méndian; gúzia ... áutsirik! ah! todas rotas! ... pues áutsi ahora y eta bé(u)rrak y eta béiak, órai etsian, sártu(k) gúziak ... y eta emóitan xát(r)a, pues bélar ... pues arrápatan ... bélar, xátako orài, tènpra káu. Bórtian ez dagó batre òrai: jabolínék sólo; orài dagué,²³ béteri(k), méndia sen báratan dú,²⁴ ez ... orài, coño, nada, pataték, udán, gúzia ... ebátsi, nos roban ... xátan, xátan, xátan patatá ...

—Eta noraino etortzen dira, hiriraino?

Ahora, báí, báí, àllur kué'kuéke- ...áino²⁵ éltan, éltan; hasta ... idian sártan abántxu, báí ...

—Eta ez dira irtetzen ehiztariak eskopetarekin?

Bai, òrai y orài tenprá ... èskópetà ... pero òrai gúzian dagóna méndian, èz útzu; dagó ... èz útzu ... Gobérnia ílt(r)a; bar dú égon ... lúrririk gabè,²⁶ bar diór, íltako, íltako. Aurten, il ditú àski ónki, ógei jabalína o óbro, il, il, áurten, bai; òrai, orài dagó ... arrańák, péskatan ... ¿cómo llamaís vosotros a la arráña, la trucha?

—Amuarrai(n)

Nosotros le llamamos arrańák; en Francia tienen también arrañas, y ahora yo me acuerdo que iba a hablar con los franceses, a pescar, allí, al otro lao, y ...

—Nóra xoàten txú, Doroteo?

—Ah! lagunéki kuék,²⁷ àrráña búltra ...! kór, barrankóik'ora.

—Oh! y zér, nóla bar dú ... arrápatu arrańák?

—Eskíareki²⁸

Eskíareki? oh! ni(k) ... záku bateréki, ánix ... mée, muy del-gao, y eta bí mákilarekì, sár ... zúbian kór, zílo kòri, kóri, pues dagó

23 daude dela dirudi, dago-tik erakarria.

24 Agian, mendian zer baratan duk (?).

25 allur kuetraraino edo kuetraradraino itxaron ziteken.

26 elurrik behar luke.

27 lagun kueki behar luke.

28 eskíareki itxaron nuen, Bibliografiako lanetan irakurri bezala. Lehen aipatu Fí-dela Bernart andrea, bere lehengusinak, éskia "la mano" eta eskia "la d(e)recha" esaten du, eta are, "la pierna de la derecha, del lado derecho" galdetu zaionean, eskiko ázpia eman du.

*ánix arráña, allí, y eta ... úra, bar dú ... élur,*²⁹ *égòx kéíóyetan,*³⁰ *axkór(a) ... azáda báterekí, zánkoarekí, túrbie ízar úra, y eta arrañák erkítan ... dù bárníati, oríllara, eta'rrámaka àndi kolaxé ... arrápatan, ánitx ónki.*

—Ah, orduan, zikinduriko uretan aurkitzen direlarik, irtetzen dira bazterretara ...

Bazterrétra, bai, kolaxé ...

—Eta «ordían», «gúnian»,³¹ «gúnian» ere esaten da hemen?

*Gúnian, gúnian, bai, sí, sí, entonces ... xuáitan dú gízóna, koláko úr e ... zázpi, zórtzi arráña, arratapá(i)lla y érra,*³² *xuáitan dú kebéntiatí,*³³ *bèste áltiara, y séi, zázpi, zórtzi ... arrápatu, ánitx, abántxu éin, abántxu éin, zílo bat, en un pozo, kán, bórtian, bèste áltian, Frántzian, méndi, méndi Frántzian ...*

—Eta hemen?

Eta, kében? no; extagó, extagó ... kanbèste úr y kanbèste zílo, nòla kán; kán, Frántzian, méndia dagó kolaxé, barrankóyak ... Larráñe ... gáxxix(ea)ó dagó. Kében dagó, méndia, ur zulláo; kèbènti xuáiten dù mugára, Frántziara, y ekústan dú, uh! Mauleón y eta gúzia, y kében èztíz'íkústan, porque méndia dagó gúzia ... ándi, ... èztíz'íkústan, Irúñatí, claro, bar dú ígar Óri, Órin, kóri bai, kastaléjoserekí pues abántxu, pero, ez, èz ekústan más que la ... Izaga; lagúntan dú ...

—Eta La Higa ...

*... e'bái ...; kébèntí, pues ekústan dú, pues la Aézkoa, eta la ... de Ori, èkústan dú, Burgete y kolaxé, gúziak kor, anix onki; pero kében, ahora, kébèntí, bar dú ... xoáitako coño, dá andiáon méndia; andiágo oráino kor: kau dá, Pirinèo Báxo o Pirineos Bajos, kau, y eta kében, Huesca, y a karát, karát, cara a Cataluña, pues dá andiáo, bórtiak; Aiñé y ... kolaxé ... dagó ánix; ní extiár (y) égon:*³⁴ *nère úmia égon dá, báí, artzáí, kán bórtin ándi kurák, sí, égon da. Gaztetí xoán ... égon artzáí,*

29 Hemen ordea, *lur* behar duela dirudi.

30 Ez dut ongi ulertzen. Agian, *-oyetan* = oheetan, amuarraínak babesten diren erreka zulotako harriei buruz?

31 Bidankozen erabiltzen zen era.

32 Azkuek, bere hiztegian, ARRAPAL ematen du: 3.^o (R-uzt), al alcance de la mano, a portée de la main. Hurbil gaudeia iruditzen zait; beraz, eskumendean daudenak "arrapatu eta erre" ote den dirudi.

33 Bi atzizki: *kebenti* = hemendik, aski baillizateke. Lehenago ere, *kebentiki* erabilia zuen, lehenengo atzizkiaren fosileztapena nabarmenki azalduz.

34 Aditz iragankorraren laguntzailea erabili du; naz, nuzu edo nuk itxaron ziteken.

*zomái ... séi úrte o óbro, eta ... udará ígan sàlduareki bórtian kúrak.
Y kán ekúsi ánix, ánix ... ánix dagó a sárrios, y eta ánix ... dagó kan.*

—Eta egun, «Neskanegun (edo Nazkenegun, = larunbat) Saintu», uste dut elizkizuna gauez egingo dela. Etxetik irtengo da?

*Ni? báí, báí, xoánen dú, arrastrián bai, arrastrián ... gàizagó;³⁵
órai, órai ... gáur, gáur, eta biar igárte, ere báí.*

—Baina «gaur», gau hontan, otz handia izango da?

*Otz? báí, órai badagó ... ténpra ... amíñi bat òn, pero ... bértan,
xítan dú gáixto!*

—Eta ez da beldur, gauez eta, etxetik irtetzeko?

*Ez, ez, ni? ez, ez ... éz dur nik xoaitáko, kostunbrátu(k), bai ...
klimátu ...³⁶*

—Eta elizan ...

Elizán badú kalefazióna, badaó, ere báí, ànix onki, órai, ànix onki.

—Esan beza zer egiten duen, ezer egin gabe edo asperturik ez egoteko.

Ab! lagunék, xúntatan lau, eta músa ... (t)xókatan.

—Bai, baina ohetik jeiki eta zer ...?

*Ab! len? xoán a égoy(e)a³⁷ y ... xázpi, zor ... ámar óren, óian;
èta géro ... xoán ... y eta kafé ... ártá³⁸ eta eguérdikàgo,³⁹ éz xan bá-
tre; éz bàtre ... que bai, txíntxor ... txíntxorra xán, lukánka y eta ko-
laxé xán, pero, ni órai éz; ni kafé ... bùstiko ògiereki, àni(t)x onkí,
eguérdikò éltan. Ahora, xoàitan diénian⁴⁰ ní ... làn egíttra, atxúrtra,
à(i)xkoráki, o atxúrta, ái-eta àxkoráki y eta ... talláttra y kolaxé, ordian
eremáitan dú ... txíntxorrá ... ónak, xátako, méndian; arági ...*

—Beharko da, noski, indar hartzeko ...

*Índarrakò, lanéko bar dú xan ónki; éz bar du xán ... zúku bát
de ... de ézne sólo. ()i, èta géro, pues ... ánix ónki, sartenén o ...
izárr-a súan, eta ... gósete,⁴¹ gòse dú ... edo ... xán koláko gisa ... sí,
crudo, quiero decirte ...*

35 Gaztelaniazko "más de noche" esan nahi duela dirudi.

36 Erdal jatorriko "akostunbraturik" eta "aklimaturik" dira.

37 oyara-ren nolabaiteko metatesia ote?

38 artra edo artu?

39 Gaztelaniazko "(hasta) más al mediodía" dirudi.

40 Aditz iragankorraren laguntzailea erabili duela dirudi, hitzaurrean aipatu xoaitan da hortatik, nahiz bere buruaz ari, ez badu erakarri.

41 Goseak egon (??).

... *caliéntalo a la sartén ... bello, bello zák súan sartenéki, ónki xátakó ... èz txokárratra, èz ... èz útzu ... si pones la carne en el asador, que no la dejes achucarrar ... achucarrar es, que se quema ... txokárratu du ... txinkórre; has dejao ... l'has chocarrau la chula; chula es, en castellano es chula y en vasco, aquí te darán txinkórre ...*

... *èz nagò, òrai nì, èz dagò ... lib(u)rúan èmar dié⁴² érran ónki, ikástako, gáztia, pero orái zarrék órai, zer: abántxu, abántxu ... gáltu gúzia ...! ní, ea, èkustan dú yík, zómat ... gázték, èz entelegátan baté, kór, èz entelegátu dé(i)us ere, gizon kuék, gúzia, kór, èz entelegátan batre. Nóla, eta ... coño, bárre egitan dù, Doroteo nóla, nólaz míntzatan dú(k), básko korék.*

Hitz hauek, behin baino gehiagotan, izkribuz eta abarrez ezagutzera iritsi garen Bidankozeko Mariano Mendigatxa, Bonaparte Printzearen lehenik, eta geroago Azkueren laguntzaile izan zen Mendigatxa famatu hura, gogora ekarri didate. Alfontso Irigoien euskaltzainak bere «Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue» izeneko lanean (Euskera II - 1957), gizon hartaz idazten zuen «Es un caso curiosísimo de floración en medio de la decadencia del vascuence de su valle ...», maiz askotan etorri zait burura. Izan ere, ordutik hona urte asko iraganak —eta noski, orduko Mendigatxak euskal giro guti izanagatik ere, oraingo Doroteo honek baino aski gehiago bai, norbere euskararen asmatzen denez—, norekin míntzatu ez izanak eta «mallo-mallo» ahaztuz joanak ezarri dizkioten mugak hain izan diren handiak, ezin eska dakioke gehiago ematerik, ia bere borondate hutsez, dezakeena baino gehiago egiten duela baitirudi; ikusi besterik ez da, taberna batetara sartu eta berarekin topo eginik, berdin hiritar zahar eta gazte inguruan egon, nolako gogoz lotzen zaion euskarari, irrifartsu, agian bestek duen edo lezakeen lotsa, inondik ere senditu gabe, ozenki mintzo delarik ingurukoek zenbatetaraino dakien ikustea gustatuko bailitzaion, hain gar handi eta gogo ezin jatorragoa erakusten duela beti. Bestalde, irakurri ere egiten du euskaraz eta idazten ere saiatu da zerbait, lehen esana nagoenez, geroxeago dakartzadan gutun batzu frogagarri direlarik.

... *bérbe o b(a)ràtzia, o mëndiará xoán, èta eguérdi ... pues eramáitan ... xáko bat ... árdáureki ... y eta ... txintxorrá ... xúria, áseri ízar, asar, ízari y eta gèro xán y eta égon- ... lékua(n) ... ló ... égin ... òren bát, eta géro bétí órai o géro, xoán óren lan egíttra gogóra ... o atxúrtra o ... égin ... ègúr egíttra y kolaxé ... tállatra, bélarrak, kolaxé ebiltzen dirà, kében, gizonak.*

⁴² Agian bar diek (behar dik) edo emon biar diek (eman behar dik), (denbora, adibidez).

—Eta zein ordutan itzultzen da berriz etxera?

Ab! eta géro, pues, méndian bàre badù ... zòma(it) mándo ... ásto ... o béur o ... zomái(t), pues ... ègur kárga bat ... éga⁴³ ígar, y tsátsi étsiará.

... zúri, zúri, zùr'egítan. Nón dagó úmea? xoán dù ... bérruak ...⁴⁴ zùr'egítira; ánde ha ido, dónde está el hijo? pues ha ido a hacer ... pinos pa madera ...

... txabolán, egin, bai, ere báí, ègur záma ...⁴⁵ ízar ... lárrua, lárru bat, eta kán égotx y ... y égin òren bát, deskánsatu, ta gèro pues xoán, nòla érrain duàn⁴⁶ ... áski ónki.

—Eta zakurrarekin joaten da beti?

Ab! ere báí, pues emóitan a zerbái óngi, y eta égon y xoán, koriétra, jabaliné ... ekústan ...

—Eta zein izen du zakurrak?

Txakúrrak? zér izena? extakiér onbértze; zórtzi ilabète dú ...

—Baina, ezartzen zaie izenik zakurrei?

Zakurrér? emóitan dú, bai, izena ere báí, txákurrèk ...

—Eta bihar, igande, zer egingo du?

Biar? biar igánte, pues ... zùku xán, kafé erárta⁴⁷ eta ... géro ... àmaké ... t'érdian, o kolaxé, xoán elizára, mezára. Eta érkín ...

—Meza handia izango da?

Ab! mèza ándia, biár ...⁴⁸

—Eta nork esaten du?

Quién, emán? oh! badagó ... jesuíta bat, kében ...

—Bai? nongoa?

Nónko? Tolósa tùdurá (?), de Tolósa dadá; badakí ánitx ónki kóri,

43 Agian *egar* (zamatu) eta agian ere, ondoren esaten duen izar hori gaizki esana, gero zuzendua.

44 Azkuek bere hiztegian dakarrenez, **BERRO**: (AN, BN-s, R, S), tierra que de nuevo se labra, terre qu'on laboure de nouveau. Halere eta textuinguruari begiratu, *ler* behar duela izan argi dago (pino, pin); *lerrak*.

45 *egurtama* entzuten dela dirudi.

46 *errain* horrek, "erranen, esango"ren balioa izanagatik ere, gehiago dirudi, esanahiari gagozkiola, nola *erran du(r)an*, "esan dudán bezala", alegia.

47 Agian, *edarta*; "edatra" izango da, zihurki.

48 *m(e)iar* entzuten dela dirudi.

*uskará, báí, míntzatan ... níri biàrabazi ónki;*⁴⁹ *gu'é bėti, ekústan dínian, erráitan du:*

—Zér egítan dú, Doroteo ... ègun óna égun, eh?

—Bai! eta zú nóra xoáitan?

—Oh! ní bar diéz xoán, bèste ... Jabiérara ...

... dá kánti, kánti nère autóareki,⁵⁰ xítan dú, àzkenéguna, gúziak kóna. Kán badú ... koléjio bat, eta dagó kében párroko, bós, bós úrte-
rentáko; oràí eta ... ànix gá(i)xki ... ápezentáko, ídi kuék; ñótto, bára-
tàn! xuàn dú ànix génte, kèbentí, génte ... ábra(t)s kuék, gúziak da-
gué ... Irúñan, órai, eta ... Zaragóza y así ... xoáitan ... ezti xínen, ké-
bentí báí, xín due kuék, pero dagó kében, kében xítan dú, égun k(u)ék
igárt(r)a kóna. Eh! Uztárro(t)z xuàn du ànix génte, erosi ... étse,
kóri ...

—Eta hiria utzi ...

Útzu, útzu ... òrai, òrai ziek, donostiárrati, badakí zómat áuto,
igártan égun kuék kèbentí? jo! ègun góxan, èztakiéz zomàt! xuàn dú,
Òtsagabiárekó, Òtsagab(i)éko konát y Erronkáríko ... Salazára ... a Sa-
lazar ... xoán, eta, boh! áni(t)x; kan, ekústan e ... el mar, cómo llamais
vosotros ...?

—Itsasoa ...⁵¹

Itsásoa, es? ... claro, allí ... ekústan áski, y óbro ... áidia ... áidian
dagó sanáo, kében, obetáko, pulmonentáko lizárde;⁵² erráitan zién: oh!
zér ónki záudezéi⁵³ aquí (?), zé bizarrá sanón xítan kóna ...! qué aire
más bueno tienen aquí ...!

—Eta elizatik irten, eta ...?

Ah! bueno, pues marchar a ... tabernára; allí ... y eta xátan ...
póixko bat ... de txìntxorrá ... y eta ... bí ... pixkolábi, erán, ardáu, y
eta géro, egítan ... amèke érdia, pues xín étsiará, xátra; xán ónki ...
bíar⁵⁴ ... órai, bėti ... xátan ónki, kében. Ah! òrai ... ollárkuakí⁵⁵ y
eta ... áxuriakí ... ah! uná;⁵⁶ ahora arráña y et'órabora ...⁵⁷

49 irabazi izango da, zihurki.

50 bere autoareki behar du izan.

51 Ez nintzen oso zuzen ibili nire erantzun hartan; geroxeago ohartu nintzenez, Iratiko aintzirari zegokion, noski, bere galdera.

52 Horrela entzuten dela dirudi, "lizar, lizardi"rekin zer ikusi beharrik izango duela uste dudalarik.

53 Ez da oso garbi entzuten; zaudei (zaudete) dela dirudi. Ondoren irakur daitekeen bizarra horrek "iparra" (ipar haizea)-rekin zer ikusi beharrik izango ote du?

54 "Bihar" ala "behar"? lehenengoa dirudi.

—«Axuriaki», arrañarekin eta zer besterekin?

Jéki e ...? ⁵⁸ xátan; òrái ... éz(d)a faltrén ⁵⁹ ... konténto patáta, galléta ... bérzak y eta kolaxé xán, pero órai, órai xátan dú ... xán, xánakin ánix ónki, orái ...

—Ongi jaten da, beraz? «obe ezik len»?

(Era hontan egin diot galdera, berak gehien ezagutzen edo, gutienez, erabiltzen duen gonbaraziozko era horrelakoa delako. Hau dela eta, oharño bat egingo dut, bidenabar: Doroteo jaunarekin hitzegitean, eta haseran aipatu nire aurreko lan hartan ere esaten nuenez, erronkariar gisako edo erronkariar izan nahi duen «uskara» bat izan da, ahal izan dudana neurrian, noski, erabili dudana, nahiz, «Tio Doroteo»-renarekin ez nahasteagatik, orain arte eta aurrerantzean ere darabildan euskaraz azaldu.)

Obe ézik ... gázte ... tenprák, en tiempos de más jóvenes, ógi sólo méndian, ógi sólo, no orái; orái da xátan dú ánix ónki gúzia; artzaiék y làn eginzálek y gúzia, xátan obé, kében ...

—Eta arratsaldean, bazkalondoan?

Baskalduéna, pues bér, bazka(l)boéna ⁶⁰ y eta ... tabernára xoára ... y xúntatan dú ... séi lágun eta mús ... xókatra, eta abér nor, nórk eribázan, ⁶¹ o erràitan abér, nórk bar du pákatu ... èratan dién(i)a ... lo que se bebe, ziók o néi, y gáltan diénia, kúra bar dú págatu ...

—Baina dirurik ez ...

Ez, déiru, déiru txiki; oh! bí pezéta o ... bós pesèta ... óbroàgo ya ez xókatan.

—Ez da biziorik ...

Ez, éz dagó, ez; òrái, ah! ni, gázte-n'zínian, bai, ordien bánka y eta ... ligadá y uh! ordín bai, txókatan; orái, éz ...

—Banka eta zer gehiago esan du?

Eh? eta ... ligadá, ligadá; ligadá es ... rey, sota, caballo ... de copa, de oro, p'ahí ... bí dúro, séi dúro ... gúzia, izártan allí, séi, zázpi gízon

55 Ia gehiago *allarkuaki* entzuten da, bokalaren asimilaketa bitarteko dela.

56 *unak* (muinak) izango ote dira?

57 *et'oro* *ahora*?

58 zeki edo zerki (?) "zerkin" behar du izan. Ez dakit, bestalde, fonetikako ikasketatan dihardutenentzat garrantzirik izango ote duen Fidela Bernatek *ajadón* bat (un azadón) esana duena jakiteak.

59 "faltaren, faltako"; *-tren* zaraitzuar gisako geroaldi-atzizkia da, *-turen*-dik dena.

60 Ez dago oso garbi.

61 *irabaztan* behar du izan.

edo óla ... A dúro ... rey, sota! erráitan ... bát; a dúro bat! ah! pues ... baduéla bere ... láguna, béste ... kolaxé(t), ordin erráitan: érki(n), o ... ní, bai dú,⁶² yo quiero ...; y karták, erré(g)ia o caballo ... pues érkitan dú rey antes, pues irabázi, bai.

Kórr-ere èzi ... donostiárreti ez xókatan? kasino anix ... eta gizione zarréki a qué, ya xókatan dù músuan? sí?

—Kasinorik ez da, kendu egin baitzuten jokoa duela denbora asko; orain jotaku nahi duena Miarritzera eta Hendaiara joaten da, baina kartetan eta holakoetan jokatzen da, bai, zerbait, tabernetan eta, hemen gisa.

Bérber gisa, báí; ni ékusi dú áto,⁶³ Royéren etséan, pues séiéka, géi izártan, allí ègon dá ... ánix, eta txintxóna ... txintxón, badakí? ... errá(k) ea dú básto, óro ... bastò, pues ... láu ... láu kartá ... el uno, el dos, el tres, el cuatro, básto, y ... y después de todo hacer chinchón-chiñón; xúnto, xúnto y irabáztan ...

Ah! ene maztéak dirá: zomát ténpa egítan dú kór!, èrranen dú, y eta coño! mázteak kanbéste ...

—Eta emakumeek ez dute jokatzen?

Ez ...! ez, no. Mázteak orái ... báí orái kafétra ... eártan,⁶⁴ bérber gisa nola gizonàk ...

—Baina jokatu ez ...

Xokátu ... ah! bàdakí, báí, etsèanekí ...⁶⁵ xókatan ...

—Tabernan ez ...

Taberná're(n) órai(n) sártan dú, gènte ... gáztia ... neskátuak ... gúziak, bérber gisa nola gizonék kèben igártra, y eta pípatra ere báí ...

Ah! bar diágo xuàn, bar dú ... émon ... úra ... mánduak(i), órai ... xátra, bai; badú bèste értse(a) bat, e ... Espandóyan, erráitan, báí, badugú ... ìlarkoáin⁶⁶ y eta ... áutza, badú y eta patatá ... y eta ánix ... gáizak, mèndianentáko ...⁶⁷ egitáko lának, makinék, 'e badú(r) ... kében ná màs, txìlo txièlo du txípi ...⁶⁸

—Monja dagoen bere alaba bati buruz, honela dio:

Kòr dagó, Páparekí (argazki bat erakutsiz), Pìo dózerekí, úmia ... álaba, bai, en Roma; bós urtè, ègon kán, eta órai dagó Líbano ...

62 nai dur behar du izan.

63 atzo behar du izan.

64 edatan edo eratan izango da, zihurki.

65 etxean bertokoeekin?

66 ìlar kobain dela dirudi.

67 mendiarentako?, "mendirako" dela dirudi.

68 ertsea-ren edukierari ote dagokio, txìlo "zulo txipi" izan?

KOLDO ARTOLA

—Ongi. Eta nork esan dit, zenbait egun iraganez, hemen egon dela ...?

Ègón dù, bí ilabète ... ègón dà Bilbao y ... égon da; badú ... hermanák, kolaxé, badú ... en Sondika.

Badúr kében ... ápez bat dagó kében ... bèste etséan, kuñatárekí, kór, y xuán a kósta kára, Alicante.

—Ipuinen bat, kuentoren bat kontatuko du?

Kuénto, qué kuento bat de ... árren? beh! no ...

... bai, pero ya aquello que, que teníamos más suelta la ... la ésto, pero una cosa que casi la tenía casi olvidada, pues fíjate pa que yo te pueda contar algún cuento o ... qué se yo, lo que por poco sabemos, pues, es las preguntas y las cosas éstas ...

Ondoren, eta kantari gisa, gauza ttipi hau ematen du:

*Neskaxi pollita
Zer dun saltzeko ⁶⁹
Bitarte polli bat
Besarkañi emoitako*

—Iragan denboretan, almadieroak ibiltzen zirenean, noraino etortzen ziren almadiak hartzera, honaino?

Nòra xoáitan? konáino? almediéroak nòra xoáitan? Zaragózara; èguatxáti ... ízar(r)i ... lúr o ... zùrák y kémenti, séi, zázpi égun, èguatxá abájo xuán, Erribráko y eta gèro éltan, Zaragózará, y eta a ... Tudéla ... éлта(n), y Tortósan ere báí, kébenti ... kán sáltan, sáltu, allá badagó, áuskale, ⁷⁰ y ... bàdago ... serrátu, serrería eta karpinterék, badó, ètseentáko, eta kòrraliè ... eltxié ⁷¹ egítako, eróstan, zúr(i)ak ... ⁷²

—Eta nola lotzen zituzten zurak?

Ah! lótàn, pues kán, en las posadas y xoán, zázpi, zórtzi gizon àlmediéki, xó(a)n bere rémoareki y eta ... kánti, pákatu ... xórnía ⁷³ o ... (zuzentzera doa) jornália gizonér, eta ... xoán étsiarà.

* * *

69 Beste nonbaitetiko jatorria salatzen du hitz honek, saltako behar bailuke.

70 "Hausle, hausten duenik" dela dirudi.

71 Aurreko hitza zein den ikusiz, gehiago dirudi "hesi", "etxe" baino.

72 Hitz honekin, lehenago ere ikusi ahal izan denez, zalantzatan dabilela dirudi, zurak esan beharko baitzuen.

73 Ikusgarri "jornal" erdal hitza esaterakoan erakutsi duen erronkariar jitea, haserako j horren orde, x erabiliz.

Hirugarren egonaldi motxean, 1975ko Irailaren 8an, etxe berean.

Aurreko egonaldietan berak esan zenbait gauzari buruz argi egiten saiatu ondoren, egun hontan, goiz hontan bertan zer egin duen galdetu izan bide diot.

Órai? góxan égin? pues xági dú ... eta xoán ... sokáltiará, eta ... ársu ... ársu kafé(e)ra ... ógiarekì ...

—Hartu?

... ártu, ártu y eta ... èzne amiño ba(t) egótxi, eta ógi tòstatúk, eta ... xan; eta géro, pues xoán ... kára, bortiára, o esto ... barátziara, kúra, barátzia o ... allúrko ... ère báí erráitan. Ya ... ézkoan⁷⁴ ègon dá, ílarra ... ténbo(r)a tròna kuék'e ... egótxi ... makiléx ... gáixki égin, eta izari xúxi, gúziak. Que he puesto los palos de vainetas, que estaban tirados por el aire, y por la tormenta y he estao enderechándolos; y después, he estao sacando una terrera de patatas ...

—Esan, esan beza ...

Sí, égon dá, pues ... géro, patàta ... erkítan, y eta ... ekústako abér ón o gáixto erkítan, eta ... órai lúrra dagó ànix ónki, dagó ... ànix ... ànix bello ... y eta ... útzu du, kán, yín ... xín dú ... xérkatrá, pues xín étsiara, kében, kóna. Eta oràì, (lehen esan dudán eta zenbait gauzaren argigarri eman dugun denbora aipatzera doa) ègon dá, kében pues, bi óren o kolaxé, pues ànix ònki, pues ... ékusi o ... èrran dú nóla ... ní mintzatú ... ígari urtiak, eta oràì, pues zerbái gáiza, gáixki égin y ... égin orai, amiño bat ... obé.

—Eta gero bazkaldu

Ba, oràì, pues orái ya ... eguérdi, bàzkal àmak'et'érdiak (?), óbro, bì et'érdiak bertán ... conquè ... ahora xátra.

—Eta gero ...?

Eta gero, bérber bar du xoán; bar dú xoán, gáin(i)eko bórtu nóla dú ... élur bat,⁷⁵ abér égon dà ... ègitan dú ... bòs égun, ègon gábe, abér si jabalinék sártu dú patatán, ekúst(r)a, y eta géro pues ní xián(e)'nú⁷⁶ béste ór ...⁷⁷ kára, otra vez patatá erkítira, badiér, p(i)ero orái, gáixko,

⁷⁴ ezezkoan, ez sortzekotan?

⁷⁵ lur bat behar duela dirudi.

⁷⁶ xanen nuk behar duela dirudi.

⁷⁷ beste oren, zihur aski.

KOLDO ARTOLA

*gáixto izártan kanbèste'úri, egin, coño, patatá tústeden,*⁷⁸ *bàr du éрки,*
*fite orái; txabolán kúra(k), badiéla, kán sárteren dú*⁷⁹ *y mállo-mállo,*
*ikásinin dù*⁸⁰ *étxiara.*

HIZTEGI LLABURRA

- Abantxu.*—Ia. *idian sartan abantxu* = hirian sartzen (dira) ia.
Abrats.—Aberats. *gente abra(t)s kuek* = jende aberats hauek.
Areskide.—Adiskide.
Aiñe.—Anie mendia, Auñamendi.
Akabatu.—Bukatu, azkendu, burutu.
Akaitu.—Akitu, nekatu, unatu.
Altian.—Aldean, aldamenean.
Altiara.—Aldera.
Allur.—Alor txipi.
Allurko.—Alor oso txipi (bi xumegarri, *alur*-etik hasita).
Amiñi.—Azkue, Dic.: (Sc), poquitín, átomo: petit morceau, atome.
Amiño.—Gutti, puska txipia.
Anaxe.—Anaia (mugagabea).
Andiaon.—Handiago (sudurkari oso nabarmen batez).
Anitx, anix.—Aunitz, asko, oso. *anitx onki* = oso ongi; *anix gente* = jende asko.
Anixka.—*Anitx* delakoaren xumegarri.
Arramaka.—Eskusare, salabarda. «Remanga» eman zuen gazteleraz.
Arrastrian.—Arratsaldean.
Arren.—Alta, bada. *arren zer?* = zer bada?
Artra.—Hartzera.
Aseri.—Aseturik. («erre» bezala ere, (asar) erabilia du).
Atxurtra.—Haitzurtera, iraultzera.
Autz.—Lasto, agotz.
Axkora.—Haizkora.
Axuriaki.—Bildoski, bildots haragi. (*axuruki* edo *axuriki* itxaron zen).

78 *tustoren* (duk), “ustelduko duk” behar lukeela dirudi.

79 *sarturen dur* behar luke; beste asimilaketa bat ikusten da hor.

80 *ikasi*-tik hasita ez da zentzurik aurkitzen; *xatsi* edo *tsatsi*-tik ordea, bai, baina aski urrun geratzen direla dirudi. Beste asimilaketa bat, bestalde, hor ikusten da ere nabari: *-iren* ordeztu, *inin* entzuten baita.

Azikatu.—Erein.

Azkar.—Indardun.

Azkeneguna.—(edo *nazkeneguna?*) = larunbata.

Banka.—Kartetako joko bat. (mugatzen bada, *banká*).

Bar, biar.—Behar.

Baratu.—Gelditu.

Barnian.—Barrenean, barruan.

Baste.—Txalma, artol. (ez da euskal hitza, bere gaztelerazko esanahia «silla almohadillada de las caballerías» delarik.

Bedatse.—Udaberri. (*bed(er)átsian* esan du, «bederatzu» kardinalak eragina, nonbait).

Bellotu.—Berotu.

Berber.—Berdin. *berber gisa* = gisa berean, era berdinean.

Bertan.—Berehala, segidan.

Besarkañi.—Besarkada txipia.

Beurrentako.—Behorrentzat.

Biltra.—Biltzera, jasotzera.

Bitarte.—*Begitarte*-ren era laburtua, «aurpegi». «Itxura» bezala ere erabil daiteke (aspecto, aspect): *begitartia diezu anitx on, eh?* erabilia du Fidela Bernatek, gazta baten itxurari buruz.

Bixkar.—Muiño, mendixka, bizkargune, muru.

Biztitu(k).—Biztiturik, jantzirik.

Bordaltuk.—Ezkondurik.

Borta.—Ate. (mugatzen bada, *bortá* = atea).

Bortu.—Mendate, mendilepo, arroil.

Deiru.—Diru, sos. *deiru txiki* = diru guti.

Ebatsi.—Lapurtu, ohostu.

Egar.—Azkue, Dic.: EGARI - 4.º (R), andar, marcher. (ez nago, halere, oso zihur).

Egox, egotx-i.—Jaurtiki, bota. («etzan» bezala, erabiltzen du ere).

Eguatxa.—Hibai. (mugatzen bada, *eguatxá* = hibaia).

Eia!—Hots!, tira!, ea!

Ein.—Ehun.

Ek.—Haiek. *ek ora're, zer barra egitan!* = haiek, orain(o) ere, zer barre egiten!

Ekun.—Ukan, eduki. (Zub.: ükhen).

Eltan.—Heltzen, iristen.

Eltzu.—Eultzi. (Azkue, Dic.: (R-bid) parva, airée).

Eltzukatu.—Eulzitu, (garia) jo.

Emon.—Eman.

Entelegatu.—Ulertu, aditu.

Er.—Haiei.

Eragu.—Ekarri.

Eratan (?).—Edaten.

Erkin.—Irten, atera. (Zub.: elkhi).

Error-tu (?).—Erori.

Erraitan.—Esaten. («deitzen» bezala ere, erabilia du): *mendia, nola erraitan du(k) ? Izaga ...* = nola deitzen da?...

Errak.—Esan ezak.

Erribrá.—Nafarroako Erribera (mugatua).

Ertse, ertsi (?).—Gaztelerazko «corral» edo «cercado» dela dirudi. (Azkue, Part.d.r.: cercar = ersitu).

Eskarrik anitx.—Eskerrik asko.

Espandoya.—Uztarrozeko hauzo bat.

Eur ere.—Inor ere. (Izaban, ñor ere; Zub., ihur ere; Otsagin, yor ere).

Eureki.—Inorekin.

Ezi, ezik.—«baino»ren parekoa, gonbaraketa orazionetan.

Ezne.—Esne.

Fite.—Bizkor, laster. (Fr. vite).

Gaiza.—Gauza. *gaiza kuek* = gauza hauek.

Gaur.—Gau hontan.

Gei.—Gai, elkárrizketarako arazo.

Goxak.—Goizak. («goizetan» ordezt erabilia).

Gunian.—Orduan, aldi hartan. (Prudencio Hualde Mayo, Bidankozeko apez izanak, San Mateoren Ebanjelioa itzultzean, maiz askotan erabiltzen zuena: *Gunian, abañatan zelarik tentazalia, erran zaun* = Orduan, hurbiltzen zelarik tentatzailea, esan zion:)

Idi.—Hiri, herri.

Idiara.—Hirira, herrira.

Igante, igarte (?).—Igande.

Igar-i.—Igaro, iragan.

Izagun-tu.—Ezagutu.

Izar-i, izarr-i.—Ezarri, ipini, jarri.

Kafetra.—Kafeetara, tabernetara.

Kanti, korti.—Handik, hortik.

Kanzonareki.—Kalzonarekin, «galtz(ar)ekin» edo.

Karataxago.—Haraxeago. (edo agian «harunxeago»?).

Kar-kar.—Azkuek bere hiztegian dakarren: 2.º (R-uzt), estertor, râle ez dagokio «kar-kar» honi, Doroteo jaunak berak zihurtu zidanez, eta zer ote daitekeen ohartzen ez bazen ere. Agian, zaraitzuarren *kar* (Azkue, Dic.): celo, voluntad firme; zèle, ferme volonté izan daiteke, jendea gogo handitan joango dela aditzera emateko?

-ki.—-tik? Azkue, Dic.: 7.º (R) sufijo casual separativo, Var. de -TIK, «desde» / suffixe casuel séparatif, Var. de -TIK, «de, depuis.» IGAN ZAN GAIZA KORI APALKI, sube eso desde abajo, monte cela d'en bas. GORAKI, desde arriba, d'en haut. (Erabiltzen dituen *kebentiki* eta *mendieriki* kasu hontan sar litezke? eta horrela izatekotan, bigarren atzizkitzat har litezke?

Kobain.—Azkue, Dic.: 1.º (Sc), tolva de molino, caja en forma de tronco de pirámide invertido y abierta por abajo, dentro de la cual echan el grano en los molinos para que caiga poco a poco entre la muela y la solera; trémie, sorte de grande auge carrée, fort large par le haut et fort étroite par le bas, dans laquelle on met le blé, qui tombe de là entre les meules pour être réduit en farine.

Kolaxe(t).—Honelaxe, horrelaxe.

Konaino.—Honeraino.

Konat.—Hona, honera. (edo, agian, «honuntz»?).

Korra.—Horrera.

Korralie.—Azkue, Dic.: Korrale (L) redil, bercail (??).

Kosino.—Lehengusu.

Kuentako.—Hauentzat.

Kuñatá.—Koñata, ezkonarreba (mugatua).

Kurak, urak.—Haik, hurak.

Lan eginzale.—Langile.

Larrua.—(el) «espaldero» deitzen dutena, ahuntz larruz egina.

Lea-tu.—Irakurri.

Libera.—Iparraldean «franco»ren balioa adierazteko erabiltzen bada ere, «pe-seta» bezala erabili du.

Ligada.—Kartetako joko bat. (mugatzen bada, *ligadá*).

Lik.—*Lik eta Larrau*, *Ligi eta Larrañe* (Zuberoako bi herrixka).

Lotan.—Lo egiten.

Mallo-mallo.—Baratx, geldi-geldi.

Martxian.—Martxoan.

Mazte.—Emazteki, emakume.

Mitil.—Mutil.

Na!—Begira!, kasu egin!, so egin! (?).

Neskato.—Ez kongabeko emaztekoa.

Nexkaxi.—Neska txipia.

Nonti.—Nondik.

Ñoak.—Txipiak.

Ñotto.—Oso txipi. (*ño*-ren xumegarri).

Obetako.—Hobetzeko.

Obro.—Gehiago. (Zub.: *habo(r)o*).

Ollarkuaki.—Oilasko haragi. (agian, *ollarkoki* itxaron ziteken).

Orartio.—Orain arte (antza denez, eta *orai artio*-tik dena).

Ora're.—«Orain ere» edo «oraino ere»?

Orden!—Joan adi! (emakumezkoen arteko hiketan).

Ordin, ordian, ordien.—Orduan, une hartan, aldi hartan.

Oren.—Ordu. (adibidez, orduak emateko: *oren bakutxa*, *bi ornak* ...; baina, «zer ordu den» galdetzeko, *zer ordu da?*).

Oro.—Guztia(k).

Osagarri.—Osasun.

Pakatu.—Ordaindu.

Pipatra.—Tabako erretzera.

Plaztán.—Plazan.

Poixko (bat).—Puxka. «un pedacico».

Polli.—*Polit* delakoaren xumegarri.

-rik.—*-tik*. *Lazarik* = Lazatik.

Saldo.—Talde. *ardisaldo* = artalde; *txorisaldo* = txoritalde.

Saltra.—Saltzera.

Sanao, sanon.—Gaztelerazko «sano»tik datozenak. (*sanoago*-ren era lazoak, sudurkaria dela bitarte).

Sarrio.—Orkatz, basauntz. (gaztelerazko «gamuza» dirudi).

Soto.—Ukuilu, korta, abeltegi.

Tenpra.—Denbora, eguraldi. *anix ténpra* = denbora asko; *ténpra gaxto* = eguraldi txar.

Tsatsi, (t)xatxi.—Jetxi, jautsi.

Txerkatu.—Bilatu.

Txiki.—Guti.

Txikiáo.—Gutiago. (berdin entzun daitezke *txikiá(g)o* eta *txikiáu* ere).

Txinkor.—Urdai, xingar. (*txintxor* beste hitz horrek ere, textuinguru hortan behintzat, gisa bereko gauza dirudi).

Tzintzer.—Zintzarri, yoale.

Tusto, tustatu.—Ustel, usteldu.

Ujé.—Uxue, Ujué. (gaurregun, erromantze itxura handia duen izen ofizial hontatik, aske azaltzen zaigu).

Ume.—Seme edota alaba. Azkue, Dic.: (R-uzt) se aplica aún a los adultos respecto de su madre / on l'applique même aux adultes par rapport à leur mère.

Uruña.—Iruña. (Uztarrozeko era jatorra, batzutan besterik erabiltzen badu ere).

Uturri.—Iturri.

Xagi.—Jaiki.

Xako.—Zahato, zahagi txipia. (Zub.: xahako).

Xaistan.—Jeisten, jausten.

Xarritan.—Sarritan, maiz.

Xaseri.—Eseri, jarri.

Xatra.—Jatera.

Xin.—Jin, etorri.

Xinka-xoanka xoan.—Joanetorritz ibili. Azkuek, Part. delakoan, Atrás y adelante *xoan-xinka* ematen du.

Xoara.—*xotra?* = jotzera. (gaizki erabilia, antza denez).

Xokatra.—Jokatzero.

Xuntatan.—Elkartzen, elgarretaratzen.

Xuxi.—Zuzendu, zutik jarri.

Yin.—Jin, etorri.

Yik.—Hik.

Zakurrér.—Zakurrei.

Zankoareki.—literalki «oinarekin», «oinez» behar bailuke ere.

Zientako.—Zuentzat.

Zien uskara.—Zuen euskara.

Zilo.—Zulo, putzu. (*ur(t)zullao* = putzu handiago?).

Zomai(t).—Zenbait.

Zortzein.—Zortzirehun. (*zortziein* esan beharko zuen?).

Zuku.—Zopa, salda.

Zur egitra.—Zura, egur egitera.

BEHARRIZ ENTZUN ETA ESKUZ HARTURIKOAK

Garagarzároa.—Ekaina.

Xizte kona.—Etor zaite honera (*Xizte* = *xin zte*).

Orden zamária erágutra!—Joan hadi zaldia ekartzera!

Karrói.—«hielo».

Bixkorrandi.—«cerrico»tzat eman zuelakoan nago (*bixkorrandi*-ren orde),
-andi hori xumegarriarekin uztarturik zail ikusten bada ere.

Obekiágo xuáitan orai, ez aintzineko urték.—Hobeki joaten (ibiltzen da)
orain, ez aurreko urte(tan).

Lasterreka.—Lasterka. «corriendo».

Orden kara, eraguzak suarentako egur!—Joan hadi hara, ekartzak sutarako
egur!

Gárdereti Ansóra.—Gardetik Ansora.

Atorrá.—«la camisa».

Máinka.—«manga».

Izár zák máinka lénik.—Jartzak (sar ezak) mahuka lehenik! (harrigarri da nire oharretan *máinka* eta ez *mainká* ikustea).

Óyara, páusatra.—Ohera, pausatzera. *A descansar*, ere, esan zuen.

Puxka.—*Poixko* bezala, «un pedacico».

Lúrra anix áseri dagó patatá erkítako.—Lurra oso aserik dago patata ateratzeko.

Pur-pur-pur.—Mukiak (R = tsintsak) tantaka erortzeari esaten zaio.

Askaziék.—«los parientes».

Arroitu.—«darse a notar, dar que hablar», berez, gaztelerazko «ruido» izaki.

Azkar.—Indartsu. *Gizon azkar* = gizon indardun.

Llárrena.—Larraina = gaztelerazko «la era».

Zámari bat ekústra.—Zaldi bat ikustera.

Atxurko.—Haitzur txipia.

Abantxu illik.—Ia hilik.

Burkúlla.—(Uztarroze inguruko mendi baten izena da).

Tolaréa, Uróna, Kutxaltéa.—(Uztarrozeko hiru iturriren izenak dira).

ESKUIZKRIBU EDO GUTUN BATZU

Uztárroz, 7 de Febrero de 1974

Nere areskide Luis de Artola, el-tudu eguna, yí, retako emoitako eskarmilla zure Nativitate y eta urte berri, sin dela on zuretake y eta gure(?)tako, osagarri ekun beste urteko, eltu bervegisa nola aurten. Queben guciak onki ñoak y eta andiak. Tempra orai gaixto dago; lurra eltudu idiara, ez anix: orartio egonda temprá anix on Abentu y eta urtarila egindu anix on orai otsalia sin du, eureki y eta elurre, erribrarentako, da anix on, bortian dago orai anix lurra udantako egoitako ur, bestelak erribran gaiski ogia ebiltako. Kebentako, anis onki, xuaítandu

Nire adiskide K.A. heldu duk eguna, hiretzat emateko esker mila zure Eguberri eta Urteberri (tan zorionak emateagatik), etor dadila on zure eta guretzat. Osasun izan beste urteko, hel (dadila) aurten bezalako gisan. Hemen guztiak ongi, txipiak eta handiak. Eguraldia orain txar dago, elurra heldu duk hirira, ez asko: orain arte izan da eguraldi(a) oso on, Abenduan eta Urtarri-lean egin du oso on, orain Otsaila etorri duk, euri eta elurrekin, Erriberarentzat oso egoki da. Bortuan orain elur asko da, udan ur izateko, bestela Erriberan gaizki (ibiliko)

negia. Orai vadu tempru egoitako exen y eta tabernara xuaitako soka-tra. Egun ere bai erkrivitudu beste areskiden kor bizien dotor Aitar y eta semevat du izena Angel Irigarai y eta Javier Irigarai iruñako da. Emonza zure maztea ieta ñotuak osagarri eta obro famileiek egon zureki onki y etani ere vai onki baratan duzu areskide beti.

Doroteo de Miguel

Uztarrotzte, 4 Urtarrila 1975

Nere areskide Luis Artola. Zure postala eltudu Nativitate eguna, eta alegratu du anich, guciak. Sinda umebat o alavat Livano Monja da, kan, vi illavetentako, dago anis onki; Emoitan du eskarmila, Loteria emon duzu. Paperetan ekusidu ez erortudu vatre. Osagarri ekun beste ortere el-tu, xokatu. Zure areskide egon da Uztarrozen egunbat, Sindu Erronkari-ko festibal egin, y eta michatu onki uskarat neskato batereki. Ere vai escritu Javier Irigarai, Nativitatea, y eta beste areskidevat, Ondiano (?) Vicente Olano y escritu du guciak uskarat, y, eta mallo mallo entelegatandu. y eta erevai escritu ni uskarat orai.

Erraitandu nere Maztea y eta umiak hosagarri ekun beste urte berri sin dela on guzentako. Zure areskide da.

Doroteo Miguel Bernat

ogi (gari?) biltzeko. Honerako (?), oso ongi joaten duk negua. Orain baduk denbora etxen egoteko eta tabernara jokatzera joateko. Egun ere bai idatzi du beste adiskidek, hor bizi den —aita sendagile eta seme bat— izena du(te) A.I. eta X.I., Iruñeko d(ir)a. Eman iezaiek zure emazte eta ttipiei osasun eta gainerako familiarrak egon (daitezela) zurekin ongi eta ni ere bai, ongi gelditzen nuzu adiskide beti.

Nire adiskide K.A. Zure postala heldu duk Eguberri egunean, eta alegratu ditu asko guztiak. Etorri da, han, Libanon monja dagoen alaba bat, bi ilabetetarako, oso ongi dago. Ematen d(iz)ut mila esker, loteria eman baitidazu. Egunkarietan ikusi dut ez dela bat ere erori. Osasun izan beste urtera heldu (heltzeko eta jokatzeko). Zure adiskide egon da Uztarrozen egun bat; etorri duk Erronkari(tik?) jaialdi bat egin (ondoren) eta mintzatu gara ongi euskaraz neska gazte batekin. X.Irigarai idatzi du ere bai, Eguberri, eta beste adiskide batek, Andoaingo V. Olano, eta idatzi ditu guztiak euskaraz eta geldi-geldi ulertu eta idatzi dut nik ere bai euskaraz orain.

Esaten du nire emazteak eta semeek (semea eta erraina) osasun izan (dezazuela), (eta) beste Urteberri etor dadila on guztientzat. Zure adiskide da.

Uztárróz 5 de Enero 1976

Continuando y queriendo (Amigo Luis)
compartir contigo de que no describa
al recibir tu cariñosa carta de felici-
tacion de navidad y el regalo de
loteria que llevo el bisagra del so-
fá y no tiene tiempo para mandarte
algo de aqui, me afiebre de que
toco el gordo a San Sebastian, pero no
toco los números, pues ayer en el
bar de Luchu producido conseguir
cincuenta presetas, y te mando 25
presetas, para que las si la suerte
es buena, sea para los dos. Un ca-
riñoso saludo a tu esposa y a los a
tus dos niñas, y unas palabras en verso
Roccosles. Vere a neskeide Luis mere fami-
lia guara y eta ni, emoitandak urte berri
sinde hiri on, ore egi narra y eta oraguar
ekun beste urtera el tuko. Beren tenpora
daga enix on ez tayo, hui, solo bertian.

Apho igarante, Uztárróz 31 de Diciembre 1976
romak suriuk sokatan pelota y eta inarriak
gor mibilak kupa andia, Aragoi mere neskeide
Donostia de Higuera

Uztárróz, 5 de Enero 1976 datatzat daramana.

Vere, Aneskide Luis y eta abro fa-
mildaren echián da gola, Etudu
urken eguna urte narra oraguareriki
anit onki ieta. Narriteak anis on
ki igardun egunak, mere postala
el tudu gore guara anis onki y eta
loteria ez inabari, derus, sortias
suandu Galiciaa. Ber sortia sinin
du beste aldibatz, oraguar eun bes-
te, urteko sokkatak, Urte berria
sin de ila obekian, y gartaku onki

Mere neskeide beti baratarra da
Donostia de Higuera
y eta Loreja

Uztárróz, 31 de Diciembre 1976 delakoarekin hasten dena.

[illegible]

Uztarroze, 2 Urtarrila 1978 haseratzat duena.

r'ine a des kute Linen unterwisch
 y garide a mis unter gewirkt ich
 remm swatzen war die kiste rein
 waschen min. hier gude die
 Tempire dazug wasch min
 Nute kenne wasche da wir die orte
 wasch gelbe. Thure wasch gelb
 unmerk ichen waschen. hier
 wasch spure waschen dazug wasch. hier
 kete swatzen wasch min
 Gewirkt ist in Haged

Uztárroz, 2 de Enero 1979-z abiatzen dena.



Doroteo de Miguel eta Josefa Karrika, 1975ko Udaberrian, Xarde beren etxe atarian, Uztarrozen.



1975ko Udaberrian, aintz larriareki.



1977ko Uztailean, Uztarrozeko jaietan.

Uztárróz, 5 de Enero de 1976

Estimado y querido amigo Luis: Estarás ... (gazteleraz jarraitzen da zenbait lerrotan barrena) ... y unas palabras en vas(c)o Roncalés. Nere areskide Luis, nere familia guzia y eta ni, emoitan du urte berri sindelai on, ove eci zarra y eta osagarri ekun beste urteva eltako. Keven tenpra dago anix on eztago lur, solo bortian.

Acho igante, Uztarrozen egon Erronki gizonak guziak sokatan pelota y eta iravazi Vidangoz mitilak kopa andia, Agur zure areskide.

Doroteo de Miguel

Uztarroz, 31 de Diciembre 1976

Nere areskide Luis y eta obro familiararen echián dagola. Eltudu azken eguna urrte zarra osagarreriki anit onki ieta Naviteak anis onki igardun egunak, zure postala eltudu goregana anis onki, y eta loteria ez irabazi, deus, sortiao suandu Galiciara. Gore (?) sortia sinindu beste aldibat, osagarri ecun beste urteko sobkatak. Urte berria sin deila obekiao, ygartako onki.

Zure areskide beti baratanda.

*Doroteo de Miguel
y eta Josefa*

... ..
... ..
... ..
... ..

Nire adiskide Luis, nire familia guztiak eta nik, opa d(izueg)u Urteberria etor dadila on, hobe ezik zaharra (zaharra baino hobe) eta osasun eduki beste urte batetara heltzeko. Hemen eguraldia dago oso on, ez dago elurrik, bortuan baizik.

Atzo igandez, Uztarrozen egon ziren erronkariar gizon guztiak pilotara jokatzten eta Bidankozeko mutilek kopa handia irabazi. Agur, zure adiskide.

Nire adiskide Luis eta familiaren etxean dagoen gehiago (gainerakorik). Heldu duk azken eguna, urte-zaharra, osasunez, oso ongi eta Egu-berriak, oso ongi iragan dituk egunak. Zure postala heldu duk guregana oso ongi eta loteria ez (dugu) ezer irabazi; zorteago (suerte gehiago) joan duk Galiziara. Gure zortea etorriko duk beste aldi batetan. Osasun izan beste urterako, jokatzeko. Urte berria etor dadila hobe, ongi iragaiteko.

Zure adiskide beti, geratzen da.

Uztarroze, 2 Urtarrilla 1978

Nere adeskide Luis y vere matia y eta zure (u)miak onki egon. Gore, keben onki guziak. Zure carta eltu-du onki, Loteriareki ez sortia ona, ez sin goregana, osagarri ekun beste egun xotako. Egun ekidu (erkin dur?) iruñati Loteria, y eta zureta-ko xokatandu ogeitabos livera da 27,648 eguna bos Urtarrila xokatan-da. Queben xokatandu Uztarrozen chiki.

Tempra egitan anis on, egintanda anis vero, lurra dago bortian zerbai. Natavidatea y gari du anis onki, egondo tempra anis on orai, urte berri kau; sin dela ove, queben, aurte biltudu xiki patata, varaxitian; mendia erdi, beste unte gisa, saltu onki. zure karta ni anis onki, entelegatan. Nere maztea y eta umiak anis, eskarrikanit.

Beti varatada, zure, areskide,

Doroteo de Miguel

Uztarroze, 2 de Enero de 1979

Nere adeskide Luis Natividiak ygaridu anis onki guziak echen semia xuaitan onki biskarria orain du min. laneguitako tenpra dago anis euri. Urte berria sin dela ove ezi urte zarra guisa. Zure maztea y eta umiak ekun osagarria berve gisa gore queben zure adeskiden beti varatan queben.

Doroteo de Miguel

Nire adiskide Luis eta bere emaztea eta zure haurrak, ongi egon! Gu ere, hemen, ongi (gaude) guztiak. Zure gutuna heldu duk ongi loteria-ekin, ez irtenik ona, ez etorri guregana. Osasun izan beste egun batez jo(ka)tzeko. Egun atera (?) dut Iruñetik loteria eta zuretzat jokutzen dut hogeitabost pezeta; da 27.648, eguna Urtarrilaren bost(ean) jokatzzen da. Hemen jokutzen duk, Uztarrozen, guti.

Oso eguraldi on egiten du, egiten du bero handi. Elurrik bada mendikaskoetan zerbait. Eguberria iragan duk oso ongi, izan duk oso eguraldi on orain, Urteberri hontan; etor dadila hobe. Hemen, aurtan, bildu duk patata guti, gera daitezen mendian erdia, beste urtean bezala, ongi saltzearren (?). Zure gutuna nik oso ongi ulertzen. Nere emazteak eta semeek, asko (ematen dizute) eskerrik asko.

Beti gelditzen da, zure adiskide,

Nire adiskide Luis: Eguberriak iragan dituk oso ongi, guztiak etxen. Semea ongi doa bizkarrarekin; orain min du lan egiteko. Eguraldia oso euri(tsu) dago. Urte berria etor dadila urte zaharra (bezala) baino hobe. Zure emazteak eta haurrek izan osasuna gisa berean (nola) guk ere (?) hemen.

Zure adiskide beti, geratzen hemen.

Gutun hauetako zenbait data, azken hontan ikus daitekeen bezala, erdaraz dator; gutunok zenbait aldiz gazteleraz ere idatziak eta erdarazko aldean bakarrik datatuak izan direlako, hain zuzen ere, azaltzen dira honela.

Sei gutun hauetan zehar, Eguberritako giroari egoki ohi zaizkion esaldi eta textu aski erabiliak eta berdin samarrak aurkitzen badira ere, —ez baitziteken bestelakorik itxaron!— bada, hala eta guztiz, baliodun den zerbait, lekukotasunezko balorea txipiena ez delarik; izan ere, eta haseran aipatu mugak eta zailtasun guztiak kontutan edukita ere, Doroteo de Miguel jaun miresgarri hontaz esan daiteke, eta egia handiz esan ere, euskaraz mintzatu bakarrik ez, idazten ere saiaturia dela baizik.

AZKEN OHARRAK

Textuinguru guztian barrena ikusi ahal izan denez, badira, azkenik, nola edo hala, gauza bat edo besterengatik harritzen gaituzten hitzak; lerroz lerro idatziko ditut ondoren, ezker aldean, haien ordean zein itxaron zitezkeen eskuinaldean agertuz:

<i>bordaltuik</i>	bordaltuk (-tuik horrek zuberotar era oroitarazten du: ezkon -ezkuntü(r)ik)
<i>baterekila</i>	bateki (edo, agian, <i>batereki</i> bestetan ere erabilia? -kila hontan ere (BN) eta (S)ren erakarpina ikusten da.
<i>ardoa</i>	ardaua (bestetan ere esana duenez)
<i>neguan</i>	negian (Erronkariko euskararen, ohiki, <i>u + a</i> diptongoak <i>ia</i> ematen du)
<i>larrua</i>	larria (aurrekoan aipatu arrazoin berdinagatik)
<i>martxian</i>	martxuan (Erronkariko euskararen ere, eta arestian esan bezala, <i>o + a, ua</i> bilakatzen da; <i>martxu</i> -tik erakarri du, nonbait)
<i>xanakin</i>	xanareki
<i>apezerareki</i>	apezareki
<i>txisturi</i>	txistu (agian, txistulari hitzaren eragimenez?)

KOLDO ARTOLA

ebiltzen dira ebiltan dra

udara uda
(hau ere, erabilia)

onbertze ka(i)nbeste
(*onbertze* honek ez dirudi erronkariar inondik ere. Zaraitzun hasten da, nolabait, kidekorik aurkitzen (*kainberze*), Erroibar eta Behenafarroaraino joan behar delarik, nire ustez, horren antzekorik aurkitu ahal izateko: (h)ainbertze, (h)orrenbertze.

Eta Uztarrozerako idatzi dudan *ka(i)nbeste* horrek bat baino gehiago harri dezakeela ohartzen naiz, norbaitek, agian, *kainberze* itxaron bailezake. Izan ere, eta *st* / *rz* taldeak direla-ta, argi dagoena zera da: Zaraitzu *rz* taldekoa dela: *borz*, *berze* ... Zuberoa eta Izaba *st*-koa diren bezala: Izaban bazuten nolabaiteko oztopo, nonbait, *rz* taldeko hitz batzu oguzkatzeko (*bustegia* = buruzagia — Uztarrozen, *burzegia* — eta *Usteinki* = Urzainki, esaterako). Aurkako kasu ematen da, neurri batetan behintzat, Zaraitzun: Otsagin, adibidez, eta *Osaba* etxeko 80 urtetako Sebastiana Eseberri andreari, «ikas-tola» hitza, aski berri izan berarentzat, nonbait, eta behin baino gehiagotan *ikarzola* entzuna nagokio. Baina, eta Uztarrozera itzultzen bagara, ez dirudi hiri hontan gauza hau, arazo hau oso finkatua dagoenik, bien arteko, edo agian hobeki esan, bietatik partaide dela baitirudi. Fidela Bernat andreak, adibidez, *beste* eta *ka(i)nbeste* erabiliak ditu batetik, baina *berzer* (=besteei) eta *berzek*; *bo(r)z* eta *orzelare* (= bost eta ostiral) hitzak, besteak beste, erabiliak ere dituen bitartean.

Koldo ARTOLA

Donostian, 1979ko Udan.

BIBLIOGRAFIA

- 1931ko Euskera, II-III-IV zenb. R. M. de AZKUE: *Particularidades del dialecto roncalés*.
- 1934ko R.I.E.V., Tome XXV. Prudencio HUALDE MAYO: *Evangelio de San Mateo traducido al vascuence roncalés de Vidángoz*. (Bigarren argitarapena: Bibl. de la Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1972).
- 1935ko R.I.E.V., Tome XXVI. Prudencio HUALDE MAYO: *Evangelio de San Mateo traducido al vascuence roncalés de Vidángoz* (continuación). (Bigarren argitarapena: Bibl. de la Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1972).
- 1953ko Boletín R.S.V.A.P., cuad.º 4.º J. J. BELOQUI, J. ELÓSEGUI, P. SANSINENA DE ELÓSEGUI y L. MICHELENA: *Contribución al conocimiento del dialecto roncalés*.
- 1957ko Euskera, II. Alfonso IRIGOYEN: *Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue*.
- 1959ko Boletín R.S.V.A.P., Cuad.º 3.º Aita Kandido IZAGIRRE, O.F.M.: *Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk*.
- 1961ko Boletín R.S.V.A.P., Cuad.º 4.º Aita Kandido IZAGIRRE, O.F.M.: *Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk* (II)
- 1968ko Editorial Auñamendi. José ESTORNES LASA: *Erronkariko Uskara*.
- 1976ko Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra. Juan SAN MARTÍN: *Fragmentos de canciones del "uskara" roncalés*.

